

## **La Marató de TV3 Fundazioaren laguntza jaso du eskizofrenia ikertzeko CIC biomaGUNEren eta Bartzelonako Clinic Ospitalearen proiektu batek**

CIC biomaGUNEren Erradiokimika eta Irudi Nuklearreko Laborategiaren proiektu batek, zeinaren koordinatzailea Bartzelonako Clinic Ospitaleko IDIBAPSeko Gisela Sugranyes baita, laguntza jaso du TV3ek eta Catalunya Ràdiok 2021ean osasun mentalarekin lotuta antolatutako Maratoian lortutako funtsetatik. Proiektua hau da: “Neurotransmisio glutamatergikoa eta garunaren egitura eta funtzio haren korrelatuak, eskizofreniara daraman neurogarapenaren ibilbidean: saguetatik gizakietara”. Maratoian bildutako dirua osasun mentaleko zer ikerketa-talderi emango zaion ezagutzera emateko antolatutako ekitaldi batean hartu du parte CIC biomaGUNEko taldeko ikertzaile nagusia den [Jordi Llopek](#), proiektuan ikertzaile gisa ari den IDIBAPSeko Pablo Jercog-ekin batera, TV3en instalazioetan, azaroaren 3an.

Eskizofrenia asaldura bat da, bizitza osoan eragina duena eta kostu pertsonal eta sozial handiak dituena. Gaitzaren sintoma tipikoek (haluzinazioak, isolamendu soziala edo oroimenaren eta arretaren alterazioak, besteak beste) pazienteen eguneroko funtzionamendua gutxitzea eragin dezakete. Gaur egungo sendagaiak ez dira gai nahastearen sintoma guztiak arintzeko. Tratamendu berriak eta eraginkorrak garatzeko, galdera gako bati erantzun behar zaio: zer gertatzen da maila mikroskopikoan (edo neuronalean) pazienteen garunean gaixotasunaren hasieran?

Azken urteetan, aditzera eman da garuneko komunikazio-bide jakin batzuetan (neurotransmisio-sistemak deritzenetan) gertatzen diren aldaketa batzuek izan lezaketela horren ardura, eta gaixotasunarekin lotutako aldaketa garrantzitsuak sistema horiek heltzen diren bitartean gertatzen direla. Bizitzako lehen urteetan gertatzen da hori, eta nerabearoa garai bereziki garrantzitsua da. Hala ere, oraindik ez da ondo ezagutzen noiz hasten den aldaketa horiek gertatzen eta nola eragiten dieten nahastearen beste ezaugarri batzuei.

Ikertzaileek azaldu dutenez, “jardunbide klinikoan erabili ohi diren eta mundu osoko ospitale askotan eskuragarri dauden irudi-teknologia ez-inbaditzaileak erabiliko ditugu proiektu honetan, gaixotasunaren hasierako etapetan garuneko komunikazio-bideek zer bilakaera duten ikertzeko”. Alde batetik, giza gaixotasunak imitatzen dituzten esperimentazio-animaliekin (saguak) egingo dugu hori, eta, bestetik, gaitza izateko arrisku handieneko ezaugarriak dituzten nerabeekin (sintoma sotilak dituztenekin edo gaitza duen hurbileko senideren bat dutenekin) eta duela gutxi gaitza diagnostikatu zaien nerabeekin.

Hala, “espero dugu neurotransmisio-sistemen garapenaren eta gaixotasunaren beste ezaugarri batzuen arteko erlazioa aurkitzea, hala nola garunaren egitura eta funtzioa. Informazio horrekin, tresna informatikoak sortuko ditugu, lagundu dezaketenak aurreratu pertsona horiek nola funtzionatu duten beren eguneroko bizitzan denboran zehar”, erantsi dute. Azkenik, ondorioztatu dute etorkizunean tresna horiek lagungarri izango direla ulertzeko ea, norbanakoen garun-azterketetako informaziotik abiatuta, talde jakin batzuek aukera izan dezaketen esku-hartze mota batez edo beste batez baliatzeko.

TV3 eta Catalunya Ràdioren Maratoiaren azken edizioan bildutako funtsekin, osasun mentalean aditu diren 81 ikerketa-talderen 36 ikerketa-proiektu finantzatuko dituzte. Fundazioak azpimarratu du beharrezkoa dela erantzun gehiago aurkitzea halako gaitzetan; izan ere, azken urteetan aurrerapenak egin diren arren, oso intzidentzia eta prebalentzia handia dute oraindik: adituen arabera, lau lagunetik batek izango du bizitzan zehar osasun mentaleko arazoren bat.

Deialdi honetan guztira 146 proiektu aztertu dira. Ebaluazioa adituen berrikusketa-prozesu baten bidez egin da (*peer review*) eta Kataluniako Kalitate eta Ebaluazio Sanitarioko Agentziak kudeatu du; nazioarteko 111 adituk hartu dute parte, eta, besteak beste, bikaintasunaren, metodologiaren eta garrantziaren arabera ebaluatu dituzte proiektuak.

La Marató de TV3 Fundazioaren helburu nagusia da ikerketa biomedikoa sustatzea, programan lortutako diru funtsetatik abiatuta. Kataluniako erakunde nagusietako zientzialariek gidatutako proiektuak finantzatuz sustatzen dute ikerketa.